

EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN ETA
INGURUMEN SAILA

Industria Sailburuordetza

Proiektu Estrategikoen eta Industria
Administrazioaren ZuzendaritzaDEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y
MEDIO AMBIENTE

Viceconsejería de Industria

Dirección de Proyectos Estratégicos y
Administración Industrial

**2019KO ABENDUAREN 9KO AGINDUA ALDATZEKO AGINDU-PROIEKTUAREN
ARAU-ERAGINAREN AZTERKETARI BURUZKO MEMORIA (2019KO
ABENDUAREN 9KO AGINDUA, IBILGAILUEN AZTERKETA TEKNIKOAREN
ZERBITZUAREN EMAKIDADUNEK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN 2020.
URTERAKO EZAR DITZAKETEN TARIFAK ARAUTZEN DITUENA).**

Arau-eraginaren Azterketari buruzko Memoria hau Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15.3 artikuluan ezarritakoa kontuan hartuta egin da. Hain zuzen, artikulua horrek honako hau ezartzen du: «Espedientearen instrukzioa egiteko eskumena duen zuzendaritza-zentroak arau-eraginaren azterketari buruzko memoria egingo du, nahitaez. Memoria horretan bildu edo berretsiko da hasiera emateko aginduaren inguruan proposamena egin duen organoaren iritziz azpimarragarria izan daitekeen edozein alderdi, eta, nolanahi ere, honako alderdi hauek:

a) Proposamenaren egokitasuna eta arautzeko aztertu diren bestelako irtenbideak».

Beharrezkotzat jotzen da horrelako arau-proiektu bat onartzea, «eginbidea» tarifa-kontzeptua txertatzeko. Kontzeptu horren barnean sartuko dira, egun «izapidetze» kontzeptura bideratzen diren kasuak edo tarifa-kontentsaziorik jasotzen ez duten kasuak.

Indarrean dagoen Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2019ko abenduaren 9ko Agindua (2019ko abenduaren 9ko Agindua, ibilgailuen azterketa teknikoaren zerbitzuaren emakidadunek Euskal Autonomia Erkidegoan 2020. urterako ezar ditzaketen tarifak arautzen dituen; 2019ko abenduaren 20ko EHAA, 242. zk.) aldatuko duen agindua egiteko lehenengo aukera da agindu hura indargabetu eta osorik ordeztuko duen agindu bat egitea, baina, azkenean, ez da egokitzen jo, aldaketa gutxi eta mugatuak egin nahi baitaizkio.

Bigarrenik, ez da egokitzen jo agindua ez aldatzea, horrek kalteak sor baitiezazkieke erabiltzaileei, emakidadunei eta, oro har, zerbitzu publikoari.

Bigarren azterketak doakoak diren kasuetan beste erregulazio bat ezartzea ere aztertu da, kontuan hartuta indarreko aginduak ezartzen duela ikuskapena doakoa dela hilabeteko epean eta IAT estazio berean egiten bada; Ibilgailuen Azterketa Teknikoa arautzen duen urriaren 23ko 920/2017 Errege Dekretuak ezarritakoaren arabera, berriaz, akatsak zuzentzeko epea bi hilabetekoa da (11. artikulua, 1-3 apartatuak), bigarren azterketaren xedea «elementu akastunak» aztertzea da (11. artikulua 6. apartatua), eta «IAT estazioa hautatzeko askatasuna dago, bai lehen azterketa tekniko egiteko, bai akatsak zuzendu ondorengo hurrengo azterketak egiteko» (11. artikulua, 8. apartatua).

Azkenik, baztertu egin da bigarren azterketen doakotasun-erregimena aldatzea, hainbat arrazoiengatik, eta honela laburbil daitezke: lehenik eta behin, egokitzen jo da bigarren azterketa doakoa izateko hilabeteko epea jartzea, bai hori pizgarri garrantzitsua izan

Donostia kalea 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ



daitekeelako akatsak ahalik eta lasterren zuzentzeko, bai bigarren azterketa hori lehen azterketatik hilabete igaro ondoren egiten bada, baina bi hilabete igaro baino lehen, eskatuko den tarifa azterketa partzialarena izango delako; bigarrenik, ez da egokitzat jo ezartzea doakoa izango dela beste IAT estazio batean egindako bigarren azterketa ere; izan ere, alde batetik, nabaritu da zailtasun handiak egongo liratekeela EAEn jarduten duten zerbitzu horien erakunde emakidadunen arteko datuen elkarreragingarritasunerako eta interkomunikaziorako, eta, bestetik, dena den, ezohikoa delako eta gutxitan gertatzen delako ibilgailu baten titularrak bigarren azterketa lehenengoa ez den beste IAT estazio batean egitea.

b) Edukia eta azterketa juridikoa

b.1) Edukiaren azterketa

Agindu-proiektuak bi artikulua, xedapen gehigarri bat eta azken xedapen bat ditu.

Lehen artikulua 2019ko abenduaren 9ko Aginduaren 5. artikulua aldatzen du. Aldaketa horren helburua honako hau da: «eginbide» kontzeptua txertatzea, barnean har ditzan «izapidetze» figurarekin bat ez datozen zerbitzuak. Ildo horretan, eragiketa batzuek (IAT txarteletan datuak idazte hutsa, esaterako) nekez esan daiteke «izapidetzea» behar dutenik, baina, hala ere, ondo egokitzen dira «eginbidea» kontzeptura.

Eginbidearen kontzeptua maiz erabiltzen da ibilgailuen azterketa teknikoaren arloan. IAT Estazioak Ikuskatzeko Prozeduraren Eskuliburuak 2023ko maiatzaren 7.7.0 bertsioan (Industriako eta Enpresa Txiki eta Ertainetako Zuzendaritza Nagusiaren 2023ko martxoaren 3ko Ebazpenaren bidez onartua) ezartzen duenez, IAT txartelean jasoko dira, eginbidearen bidez, besteak beste, eskola-umeak eta adingabeak garraiatzen dituzten ibilgailuen aldeko azterketak (I. atala, 10.3 apartatua) eta aldizkakoak ez diren hainbat motatako azterketak: EE edo Espainiako homologazioa nahitaez aplikatu behar ez zaien ibilgailuak matrikulatu aurreko azterketak (V. atala, 2.1 apartatua); ibilgailu prototipo eta aurreserieen azterketa (V. atala, 2.2 apartatua); Europako Esparru Ekonomikotik datozen matrikulatu gabeko ibilgailuen azterketa (V. atala, 2.3 apartatua), etab. Ikuskatzeko prozeduraren eskuliburu horrek estatu-mailako ikuskapen-metodo harmonizatuak ezartzen ditu, Ibilgailuen Azterketa Teknikoa arautzen duen urriaren 23ko 920/2017 Errege Dekretuaren 8.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Gaur egun indarrean dagoen Ibilgailuen Erreformen Eskuliburuan (Industriako eta Enpresa Txiki eta Ertainetako Zuzendaritza Nagusiaren Ibilgailuen Erreformen Eskuliburuaren berrikuspena onartzen duen 2022ko uztailaren 6ko Ebazpenaren bidez onartua) ere etengabe aipatzen da eginbidearen kontzeptua. Eginbidearen bidez, IAT txartelean honako hauek jasotzen dira, besteak beste: kasu jakin batzuetan, ibilgailuen kolore-aldaketa, gurpil-bereizgailuak eta/edo hagunak kentzea (I. atala, 4. taldea, 4.4 apartatua), baliokideak ez diren baina ibilgailuaren mota-homologazioan sartuta dauden pneumatikoak instalatzea (I. atala, 4. taldea, 4.5 apartatua), taximetroak instalatzea (I. atala, 8. taldea, 8.20 apartatua), lehentasunezko ibilgailuentzako edo zerbitzu berezietarako berariazko argi-seinaleei dagozkien laneko argiak, argi birakariak edo dizdizariak instalatzea (III. atala, 9. taldea, 9.1 apartatua), etab.

Izapidetzearen figura, aldiz, indarrean dagoen 2019ko abenduaren 9ko Aginduan erabiltzen da honako kasu hauetan tarifa ordain dadin:

- a) IAT txartelaren bi ale ematen direnean, matrikula aldatzeagatik, ibilgailu historiko gisa katalogatzeagatik, ibilgailuak bere egituran edo segurtasun-elementuetan kalte handiak eragin dizkion istripu bat izan duelako edo baja eman eta birgaitzen ari den ibilgailu bat delako; kasu horietan, izapidetze-tarifa honela eskatzen da:
 - a.1) Ibilgailuari azterketa teknikoa egin bazaio, izapidetze-tarifa gehitu egingo zaio azterketa-tarifari, aipatutako aginduaren I. eranskinean ezarritakoaren arabera (3. artikulua, lehenengo paragrafoa);
 - a.2) Ibilgailuari azterketa teknikorik egin ez bazaio edo, azterketa egin ondoren, egin den gauza bakarra ibilgailua identifikatzea izan bada, izapidetze-tarifa bakarrik eskatzen da (3. artikulua, bigarren paragrafoa).
- b) Ibilgailuari erreformagatik azterketa teknikoa egin behar zaionean: kasu horietan izapidetze-tarifa «indarrean dagoen erreforma-eskuliburuak aipatzen duen "erreforma-kode" bakoitzeko» eskatzen da (III. eranskina).

Agindu-proiektuaren 2. artikulua zehazten duenez, eginbide-tarifa eskatu behar da «Oharrak idaztea azterketa-txartelean, hala adierazten denean azterketa-eskuliburuan edo eraberritzeen eskuliburuan». Zerbitzu horren prezioa 6,03 eurokoa da (BEZik gabe).

Xedapen gehigarri bakarrak gaian eskumena duen zuzendaria honetarako gaitzen du: «Agindu hau eta aplikatu beharreko gainerako araudia interpretatzean sor daitezkeen arazo guztiak ebazteko, bai eta agindu hau aplikatzeko beharrezkoak diren egintzak emateko ere». Xedapen gehigarri hau funtsean 2019ko abenduaren 9ko Aginduan bertan jasotzen denaren antzekoa da, azken tartekia izan ezik, orain argitzen baitu gaikuntza horren bidez ezin dela xedapen orokorrik onartu (horixe adierazten duela dirudi 2019ko abenduaren 9ko Aginduak, baina debekatu egiten dute, besteak beste, Jaurlaritzaren Legeari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 55. artikulua eta hurrengoek eta Euskal Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 25.8.c) artikulua).

Azken xedapen bakarrak, bere lehenengo paragrafoan, agindua EHAAr argitaratuko dela adierazten du —arauen publizitate-printzipioaren ondorioz, hala adierazten du, besteak beste, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 29. artikulua—. Era berean, azken xedapenean adierazten da Legea 2024ko urtarrilaren 1ean jarriko dela indarrean. Indarrean jartzeko eguna 6/2022 Legearen 28. artikuluan xedatutakoaren arabera finkatu da.

Azken xedapen bakar horren bigarren paragrafoan zehazten denez, Agindua 2024ko urtarrilaren 1ean indarrean jarri arren, data hori baino lehen Industria Administrazioaren arloko zuzendari eskudunak tarifak eguneratuko balitu 2019ko abenduko Aginduaren 8. artikulua aplikatuz, hura gaituta geratuko litzateke agindu horrek eragindako aldaketak dagokion ebazpenean sartzeko. Aurreikuspen hori txertatzearen helburua da tarifak eguneratzeko arau-euskarria izatea, KPlaren kasuan kasuko aldaketa —2024ko urtarrilaren 1a baino lehen egingo dela aurreikusten da— eta agindu-proiektu honek ekarritako berrikuntzak kontuan hartuta. Kontu horrek ez du arazorik sortzen; izan ere,

etorkizuneko agindua eta tarifak eguneratzeko ebazpena 2024ko urtarrilaren 1ean bertan jarriko dira indarrean.

b.2) Izaera juridikoa

Arau-proiektuaren edukia aztertu ondoren, haren izaera juridikoa aztertu behar da, labur-labur. Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legeak xedatzen duenez, «xedapen orokor arauemaileak dira, edozein gairen gainekoak izanik ere, legearen, legegintzako dekretuaren, dekretuaren edo aginduaren forma hartzen dutenak, eta antolamendu juridikora berrikuntzak dakartzaten arau juridikoak dauzkaten eta zehaztutako edo zehaztu gabeko epe baterako mota askotako egintzen oinarri diren xedapenak».

Definizio horretan sar daiteke aztertzen ari garen agindu-proiektua, ordenamendu juridikoaren izaera berritzailea duelako eta indarrean dagoen bitartean egintza anitzetako oinarri delako —hau da, ibilgailuen azterketa teknikoarekin zerikusia duten zerbitzuak ematea, titulartasun publikoko zerbitzua baita (ikusi ekainaren 30eko 178/1992 Dekretuaren 2. artikulua —dekretu horrek irailaren 1eko 294/1987 Dekretua aldatzen eta osatzen du, zeinaren bidez Ibilgailuen Azterketa Teknikorako tegientzako arau orokorrak ezarri eta tegi horien jarduna eta garatu beharreko ekintzak arautzen baitira—).

Proiektuaren arau-izaera 60/2000 Dekretuan ere jasotzen da (60/2000 Dekretua, apirilaren 4koa, Ibilgailu automobilen segurtasunaren arloko aztertze-, izapidetze- eta kudeatze-eginkizunak zehazten dituenak. Ibilgailuen azterketa teknikorako zerbitzua duten entitate emakidadunei izenda dakizkieke eginkizunok); izan ere, bertan xedatutakoaren arabera, dekretu horren «garapen-xedapenek» ezarriko dituztela tarifak.

Gainerakoan, aldatu nahi den 2019ko abenduaren 9ko Aginduak xedapen orokor baten forma eta ezaugarriak ere baditu.

Aginduaren esparru juridikoari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei Buruzko Legearen testu bategina onartzen duen irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretura jotzea komeni da. Horren 1.3 artikulua aplikazio-eremutik kanpo uzten ditu «tarifak», hau da, «obra erabiltzeagatik edo zerbitzua emateagatik obra eta zerbitzuen emakidadunei erabiltzaileek ordaindu behar dizkieten tarifak, sektore publikoko kontratuen legeriaren arabera, [eta] tributu izaerarik gabeko ondare-prestazio publikoak direnak». Ildo beretik, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 289. artikulua arabera, «emakidadunak kontratuan zehazturik datozen diru-ordainak jasotzeko eskubidea du; horien artean izango da, zerbitzua ustiatzeko eskubidea benetan gauzatze aldera, zerbitzuaren erabileraren arabera ordainsari bat, zuzenean erabiltzaileengandik edo Administrazioetik beretik jasoko duena» (1. apartatua), eta itundutako kontraprestazio ekonomiko horiek ere aipatzen ditu, «zeinei tarifa deituko baitzaie eta zergaz kanpoko ondare-prestazio publikoak izango baitira» (2. apartatua).

Tarifen tratamendu juridikoa «Ibilgailuen Azterketa Teknikoaren Zerbitzuaren ustiapen-klausulen agiria»ren bidez ere egiten da. Agiri horrek arautzen ditu gaur egun ibilgailuen azterketa teknikoaren arloan Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dauden emakidak. Agiri horretan xedatzen da «emakidadunek une bakoitzean indarrean dauden

Industria eta Energia Sailak onartutako tarifak aplikatuko dituztela» (15.1 klausula). Tarifak sail horrek aldatu ahal izango ditu, ofizioz edo emakidadunek eskatuta (15.2 klausula).

c) Proposatutako araua eskumenak banatzeko ordenara egokitzeari buruzko azterketa.

Agindu-proiektuaren zuzeneko euskarria dira apirilaren 4ko 60/2000 Dekretua (dekretu horren bidez ibilgailu automobilen segurtasunaren arloko aztertze-, izapidetze- eta kudeatze-eginkizunak zehazten dira, eta ibilgailuen azterketa teknikorako zerbitzua duten entitate emakidadunei izenda dakizkieke eginkizunok), irailaren 1eko 294/1987 Dekretua (dekretu horren bidez, Ibilgailuen Azterketa Teknikorako tegientzako arau orokorrak ezarri eta tegi horien jarduna eta garatu beharreko ekintzak arautu ziren), eta azken dekretu hori aldatzen duen ekainaren 30eko 178/1992 Dekretua.

EAEEn, ibilgailuen azterketa teknikoaren zerbitzua zerbitzu publikoa da, eta gaur egun zeharka kudeatzen da erakunde emakidadunen bitartez (178/1992 Dekretuaren 2. artikulua). Hori dela eta, Ibilgailuen Azterketa Teknikoa Arautzen duen urriaren 23ko 920/2017 Errege Dekretuaren 14. artikulua arabera, «azterketa teknikoak IAT estazioetan egingo dira, autonomia-erkidegoak bere eskumenak erabiliz ezartzen duen kudeaketa-ereduaren arabera. Egikaritze material hori autonomia-erkidegoek egin ahal izango dute zuzenean, edo ekonomia mistoko sozietateen bidez, edo enpresa pribatuek, administrazio-emakida edo baimen bidez».

Ibilgailuen azterketa teknikoaren erregulazioa industriaren arloko eskumenen barnean dago. EAEk eskumen eskusiboa du gai horren gainean, «salbu eta arau berezien peko industriak ezartzea, handitzea eta lekualdatzea, dela segurtasunagatik, armadaren eta osasunaren interesagatik edota eginkizunotarako legeria berezia behar dutenak eta atzerriko teknologia eskuratzeko aurretiazko kontratuak behar dituztenak» (abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onartutako Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 10.30 artikulua).

Arlo honetan, hala ere, Estatuak eskumen eskusiboa du bi eskumen-tituluren gainean, Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikulua 13. eta 21. arauetan ezarritakoak, hain zuzen ere. Titulu horiek lehentasunezkoztat jo dira ibilgailuen azterketa teknikoaren arloko erregulazioa gauzatzeko (ikusi Ibilgailuen Azterketa Teknikoa Arautzen duen urriaren 23ko 920/2017 Errege Dekretuaren azken xedapenetako bosgarrena) edo ibilgailuen erreforma egiteko (ikusi Ibilgailuen Erreformen Izapidetzea Arautzen duen uztailaren 2ko 866/2010 Errege Dekretuaren azken xedapenetako lehena).

Hala ere, Espainiako Konstituzioaren 149.1.13 artikuluan jasotako tituluak eragina izan dezake gai honetan. Konstituzio Auzitegiak, ibilgailuen azterketa teknikoaren alderdi teknikoak arautzeari dagokionez, azpimarratu du nagusiki gatazkan dauden eskumen-tituluak EKren 149.1.23 artikuluan jasotakoa eta industriaren eta industria-segurtasunaren arloan autonomia-erkidegoek estatutuetan bere gain har zezaketen eskumen-titulua direla –EAEren kasua da, zeinak, azaldu den bezala, industriaren eta, hedaduraz, industria-segurtasunaren arloko eskumena baitu (ikusi horri buruz Konstituzio Auzitegiaren 203/1992 epaia, 2. OJ)–. Bi eskumen-titulu horien eraginaren harira, Konstituzio Auzitegiak honako hau adierazi du 332/2005 KAEn:

«Horretarako, gogorarazi behar da, behin eta berriz aitortu dugun bezala (denen erakusgarri, Konstituzio Auzitegiaren 203/1992 epaia, urriaren 26koa, 2. OJ; 243/1994 epaia, uztailearen 21ekoa, 2. OJ; eta 33/2005 epaia, otsailaren 17koa, 5. OJ), industriaren arloko eskumen autonomikoak ahalmena ematen diela titularrei, industria- edo fabrikazio-prozesuak arautzeko ez ezik, baita industria-sektoreak antolatzeke ere, eta horrek, noski, arau-ahalak erabiltzea barne hartzen du. Era berean, eta lehen adierazi dugun bezala, Auzitegi honek tradizioz lotu izan ditu IATak ibilgailuen trafikoarekin eta zirkulazioarekin, zuzenean eragina baitute bide-segurtasunean, eta industriaren gaian eta, zehazki, industria-segurtasunean, ibilgailu motordunen moduko industria-produktuei eragiten baitie. Bada, partikularrak IAT zerbitzua emateko gaitzen dituen araubide juridikoaren zehaztapenak zuzenean eragiten dionez industria-sektore horren antolamenduari, aurrez erabaki dezakeelako, hemen aztertzen ari garen arauaren kasuan bezala, autonomia-erkidegoak dagokion administrazio-baimena ematera behartuta egotea, garrantzitsutzat jotzen dituzten beste faktore batzuk kontuan hartu gabe (hala nola IAT instalazioen lurralde-banaketa edo zerbitzua emateko modua eta baldintzak, bide-segurtasunarekin zuzenean lotuta ez daudenak), ondorioztatu behar da errekurtsua jarri duten autonomia-erkidegoei dagokien eskumena dela. Horregatik guztiagatik, bidezkoa da orain aztertzen ari garen 7/2000 Errege Lege Dekretuaren 7.2 artikulua zatia Konstituzioaren kontrakoa dela adieraztea. Hala ere, autonomia-erkidegoei industriaren arloko eskumen eskusiboak esleitzen dizkieten estatutu-arauetatik eta Auzitegi honek behin eta berriz errepikatu duen jurisprudentziazatik ondorioztatzen denez, ezerk ez du eragozten Estatuak, oro har, bide-segurtasunari zuzenean eta berehala eragiten dioten aztertutako ibilgailuei, IATen instalazioei eta horien enpresa titularrei buruzko betekizun tekniko guztiak ezartzea». (12. OJ)

Aurrekoa kontuan hartuta, nolanahi ere, adierazi behar da proiektatutako araua bat datorrela arlo horretan eragina duten oinarritzko estatu-xedapenekin —bereziki, lehen aipatutako 920/2017 Errege Dekretua eta 866/2010 Errege Dekretua—, eta, nolanahi ere, azterketa teknikoko zerbitzuen tarifa-alderdia soilik aipatzen duenez, Estatuako araudiaren arabera den aztertu behar da —Arau-Eraginaren Azterketari buruzko Memoria honen aurreko b.2) apartatua egin den bezala—, batez ere Estatuako araudian eta lehen aipatutako eginbidearen eta izapidetzearen figurari buruzko eskuliburuetan ematen den edukia eta irismena oinarri hartuta.

d) Ekonomian eta aurrekontuetan izango duen eragina

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren 41. artikulua ezarritakoaren arabera, «Dekretu honetan xedatzen direnen ondorioetarako, honako hauek hartuko dira ekonomia-edukiko xedapentzat: Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusia arautzen duten printzipioei buruz indarrean dauden xedapenen testu bategineko 1.2. artikuluan, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren gai propioen gain, zuzen edo zeharka, eragina duten xedapenak».

Aipatutako 464/1995 Dekretuaren 42. artikulua gaur egun 6/2022 Legean jasotzen den memoria ekonomikoaren edukia eta egitura ezartzen ditu, eta, «gutxienez honako hauek jaso beharko dira bertan:

- a) Hori indarrean jartzeak ekarri ditzan aurrekontu-gastu eta diru-sarreraren kuantifikazioa, ohikoak direnak eta kapital-eragiketetatik datozenak bereiztu egin beharko direla eta gastu edo diru-sarrera horien destinoa identifikatu egin beharko dela.
- b) Aurrekontu gastuen finantzaketa, eraginpean dauden errekursoak eta Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorrezt aparte ematen diren finantzaketa-iturriak aipatuz.
- c) Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren gaitan eta aurrekontu-araubidean eragina duten alderdiak identifikatzea xedapenean, xedapenaren aurrekariak deskribatzea eta horren beharrak justifikatzea.
- d) Proposatutako xedapena hartzen duen aurrekontu-programa ekonomikoaren deskribapena, arau hori indarrean jartzeak barnean hartuko dituen helburuak, egintzak eta adierazleak identifikatuz, eta hori aplikatzeak ekonomian eta gizartean izango dituen eraginaren ebaluazioa eginez.
- e) Programak eta lortzea nahi deneko helburuak exekutatzeko eta betetze graduaren ebaluazioa, dirulaguntzapeko programak garatzeko emandako arauak izan daitezenean. Dirulaguntzen deialdien ebaluazioa ere egin beharko da, deialdi horiek beste ekitaldi batzuetan onartutako enjarrapena izan daitezenean».

Tituluan aipatzen den agindu-proiektua bezalako xedapen arauemaile baten eduki ekonomikoa aztertzean honako hau hartu behar da oinarritzat: alde batetik, 464/1995 Dekretuaren 42. artikuluan aipatzen diren alderdien azterketa, eta, bestetik, balizko arauak ukitutako eragile juridiko eta ekonomikoengan izango duen eragina.

d.1) Aurrekontuan izango duen eraginaren azterketa

Ogasunarekin eta ekonomia- eta finantza-araubidearekin zerikusia duten alderdiei dagokienez, organo honek uste du arau-proiektuak ez duela zerikusirik azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 1.2 artikuluan zehaztutako gaiekin, eta, nolana ere, etorkizuneko araua aplikatzeak ez duela ekarriko kreditu-beharrak handitzerik.

d.2) Ekonomian izango duen eraginaren azterketa

Uste da agindu-proiektuak ekonomian eragin positiboa izango duela, erakunde emakidadunek tratamendu homogeneoa ematen ez zieten zerbitzuen tarifa-araubidea argituko baitu.

«Eginbidea» kontzepturako tarifa espezifiko bat txertatzearen helburua da, azaldu den bezala, tarifa-erregulazio espezifikoa jartzea IAT txarteletan datuak idaztean datzan eragiketei. Kasu horiek, gainera, argi eta garbi tipifikatuta daude IAT Estazioak Ikuskatzeko Prozeduraren Eskuliburuan eta Ibilgailuen Erreformen Eskuliburuan. Ibilgailuen Azterketa Teknikoko zerbitzuaren enpresa emakidadunei kontsulta egin ondoren, adierazi digute administrazio-langileen orduko kostua, Gizarte Segurantzaren

kuota barne, 33,35 eurokoa dela. Hori dela eta, lana egiteko gutxi gorabehera 11 minutu behar direla kontuan hartuta, emaitza 6,03 euroko tarifa da «eginbidea» kontzepturako.

e) Administrazio-kargen eta betetze-kostuaren ebaluazioa

Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legeak 6.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, «Euskal Autonomia Erkidegoak sustatutako edozein arauketa edo arau berri bideratu aurretik, Eusko Jaurlaritzak bere zerbitzu juridikoen bidez ebaluazio-txostena egingo du enpresak sortzearen, abian jartzearen eta haien funtzionamenduaren gaineko eraginari buruz».

16/2012 Legeak lehenengo artikuluan ezartzen duenez, Legearen xedea da «ekintzailetza-jarduera bultzatzea eta sustatzea», eta, horretarako, EAEko Administrazioak «saihestu egingo ditu ekintzaileei behargabeko kostu burokratikoak eragingo dizkieten arauketa guztiak, bai eta jarduera ekonomikoaren sustagarri izan ordez hartarako oztopo diren legeria konplexuak ere». Bestalde, bigarren artikulua ekintzailetza-jarduera honela definitzen du: «Prozesu bat zeinaren bidez pertsona fisiko batek, enpresa berri batek edo merkatuan lehendik dagoen enpresa batek produkzio-jarduera berri bat hasten baitu»; eta ondoren, bigarren apartatuan, honela definitzen ditu ekintzaileak: «Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan jarduera ekonomiko bat garatu ahal izateko aurretiazko tramiteak egiten ari diren pertsona fisikoak, forma juridikoa edozein izanda ere, edo jardueraren bat betetzen dutenak autonomo gisa, kooperatibista gisa edo mikroenpresetako nahiz enpresa txiki eta ertainetako edo lan-sozietateetako bazkide gisa». Era berean, ekintzaileak dira aipatutako bigarren apartatuko bigarren paragrafoan honela aipatzen direnak: «Euren jardunean etengabeko konpromiso etikoa mantentzen eta garatzen duten pertsonak, besteak beste, lurraldearekiko atxikimenduan eta jarduera mantentzeko konpromisoan islatzen dena».

Aurrekoa azalduta, adierazi behar da agindu-proiektuak ez duela inolako eraginik izango 16/2012 Legeak arautzen dituen alderdietan, ez baitu inolako zamarik edo izapiderik ezarriko ekoizpen-jarduera berri batean aritzeko. Gogorarazi behar dugu, ildo horretan, Eusko Jaurlaritzako Administrazio Kargak Murritzeko Jardunbide Egokien Gidaren arabera, administrazio-kargatzat hartzen direla «araudia oinarri duten betebeharrak betetzeko enpresek zein herritarrek egin beharreko izaera administratiboko jarduerak». Jarduera edo izapide horietako bat ere ez da ezarriko, adierazten den bezala, etorkizuneko aginduaren bidez.

f) Generoaren araberako eraginari buruzko txostena

Arauak ez du inolako eraginik izango generoaren ikuspegitik; izan ere, arauak ez du eraginik edo ondoriorik izango emakumeen eta gizonen egoeran, arauaren bidez hartu nahi diren neurrien izaeraren, edukiaren eta helburuen ondorioz. Neurri horiek ibilgailuen azterketa teknikoaren arloko tarifen eremuan bakarrik izango dute eragina. Generoaren arloan eraginik ez izatearen arrazoia da, halaber, indarrean dagoen beste arau bat aldatzea xede duen araua dela, eta aldaketa hori ez da funtsezkoa emakumeen eta gizonen egoerari dagokionez [Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrearekiko Harremanetarako zuzendariaren abuztuaren 21eko 40/2012 Ebazpenaren lehenengo jarraibidearen 2. apartatuaren c) letra. Ebazpen horrek xedatzen du argitara dadila

Gobernu Kontseiluaren Erabakia, «genero-eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeari buruzko jarraibideak onartzekoa eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeari buruzkoa»].

Nolanahi ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarik Gabe Bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 20.6 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, txostena egin beharko du Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak, artikulua honetan xedatutakoa behar bezala aplikatzen dela egiaztatzeko eta, hala badagokio, hobetzeko proposamenak egiteko.

Gainerakoan, araua eta berau egiteko prozedura osatzen duten dokumentuak artikulua honetan ezarritako agindua kontuan hartuta idatzi dira: Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 14.5 artikulua, hizkera ez-sexista eta inklusiboa erabiltzera behartzen duena.

g) Euskararen erabilerari buruzko txostena

Araua egiteko prozedura hizkuntza-berdintasunaren printzipioaren arabera egin behar da [Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko 6/2022 Legearen 4.j) artikulua]. Printzipio horren arabera, berdintasuna bermatuko da, «bereziki herritarrekiko eta haien elkarte-ehunarekiko harremanetan euskararen erabilera sustatuz», eta, horretarako, «araua euskaraz kalitatez lantzeko neurriak» hartuko dira, eta, «gaztelaniazko eta euskarazko bertsioen arteko baliokidetzaz ziurtatzeko, bi testuen arteko elkarriketa iraunkorra egituratuko da».

Ildo horretan, aipatu behar da aurretiazko kontsulta publikoa bi hizkuntza ofizialen bidez antolatu dela, hasteko agindua formatu elebidunean eman dela, zirriborroa hasiera batean gaztelaniaz eta euskaraz ere argitaratu dela, eta aldez aurreko onarpen-agindua ere bi hizkuntzetan onartu dela. Arau-eraginaren Azterketari buruzko Memoria hau ere formatu elebidunean emango da.

Nolanahi ere, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 8. artikulua agintzen duen bezala, 6/2022 Legeak emandako idazkeraren arabera, organo eskudunari eskatuko zaio «nahitaezko aholkularitza-txosten» bat egiteko, eta, «haren bitartez, izapidetzen ari den xedapenaren eremu objektiboan euskararen erabilera normalizatza zuzendutako neurriak proposatuko dira. Halaber, hizkuntza-gaietan indarrean dagoen araudiarekiko egokitasuna baloratuko da, bestelako organo txostengileei dagozkien zereginetara kalterik egin gabe».

h) Ume eta nerabeengan izango duen eraginaren ebaluazioa

Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 22. quinquies artikulua, uztailaren 28ko 26/2015 Legeak emandako idazkeraren arabera, xedatzen du «lege-aurreproiektuekin eta erregelamendu-proiektuekin batera aurkeztu behar diren arau-eraginaren azterketaren memorietan araudiak haurrengan eta nerabeengan duen eragina jasoko dela».

Alde horretatik, baztertu egin behar da aztertutako arauak eragin garrantzitsuren bat izan dezakeenik haur eta nerabeengan, ibilgailuen azterketa teknikoaren arloko tarifen erregulazioan bakarrik izango baitu eragina.

Eragin oso txikia eta garrantzi gutxikoa izan liteke eremu horretan eginbideagatik tarifa sartzea, adingabeek eta 15 urtetik gorakoek L kategoriako ibilgailuen titular izan daitezkeelako (50 edo 125 cc-tik beherako ziklomotorrak, kasuaren arabera). Ibilgailu horiek 920/2017 Errege Dekretuan aurreikusitako aldizkako azterketen araubidea bete behar dute, eta, horregatik, kasu batzuetan ordaindu egin beharko dute izapidetze-tarifa.

Dena den, etorkizuneko arauak ez du eraginik izango teknikoki nerabeengan, azken tarifa horren kostua eskasa baita, eta gutxitan ordaindu beharko baitute.

i) Prestatzeko prozedura eta bideratutako izapideak

Xedapen orokorra denez, hura egiteko prozedura Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legean xedatutakoaren arabera gauzatu behar da. Agindu-mailako xedapena denez, eta eskumena sailaren titularrak duenez, xedapen hori ez dago indarreko Urteko Araugintza Planaren barruan —urte horretan Gobernu Kontseiluan onartzeko aurkeztuko diren ekimenak baino ez ditu jasotzen plan horrek—.

Hala ere, aldez aurreko kontsulta publikoaren izapidea bete behar da. Izapide hori [Irekia](#) plataformaren bidez gauzatu da, 2023ko otsailaren 27tik martxoaren 28ra arte.

Hasteko agindua ere nahitaezko izapidea da, eta sailaren titularrak sinatu behar du; egintza horren bidez hasten da formalki araua egiteko prozedura (6/2022 Legearen 12. artikulua). Hasteko agindu hori 2023ko uztailaren 6an eman zuen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuak, eta bertan zeuden jasota arau-proiektuaren helburuaren eta xedearen zedarritzea, haren egokitasunaren justifikazioa eta 6/2022 Legearen 13. artikuluen aginduz edukian sartu behar diren gainerako alderdiak.

Agindu horren edukiarekin bat dator Arau-eraginaren Azterketari buruzko Memoria, eta aginduan Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren Zuzendaritza hau izendatzen da araua egiteko prozeduraren instrukzio-organo.

6/2022 Lege horren 13.2 artikuluen arabera, hasteko agindua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu zen, Eusko Jaurlaritzako gainerako sailei horren berri emateko.

Hasteko agindua eman ondoren, instrukzio-fasea hasi da. Horri dagokionez, 6/2022 Legeak etorkizuneko aginduaren testua idazteko arau eta irizpideei buruzko xedapenak jasotzen ditu (14. artikulua, «Xedapen orokorrak idazteko arauak eta irizpideak»); espediente honetan bete egin dira arau eta irizpide horiek. Aldez aurreko onarpenaren izapidea ere arautzen du; kasu honetan, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuak sinatutako 2023ko uztailaren 6ko Aginduaren bidez bideratu da, aipatutako legearen 15. artikuluen arabera, eta ondoren egin behar da Arau-eraginaren Azterketari buruzko Memoria hau.

Espedientea hasierako aginduarekin, arauaren behin-behineko testuarekin, aldez aurreko onarpen-aginduarekin, Arau-eraginaren Azterketari buruzko Memoriarekin eta espedienteari gehitu zaizkion beste dokumentu guztiekin behin osatuta, entzunaldiaren

eta jendaurreko informazioaren fasea bideratu beharko da (17. artikulua) eta nahitaezkoak diren txostenak eskatuko dira –besteak beste, Kontrol Ekonomikoko Bulegoari dagokiona (23. artikulua). Ez da beharrezkotzat jotzen proiektua beste administrazio publiko batzuei helaraztea (18. artikulua), ez baitu eraginik izango Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarenak ez diren eskumen-esparruetan.

Era berean, ez da nahitaezkoa izango legezkotasun-txostena eskatzea Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiari, salbuetsita baitago; izan ere, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 12.i) artikulua arabera honako hauek salbuetsita daude: «Eduki arauemailea duten eta Eusko Jaurlaritzak onartutako indarreko dekretu baten garapenean edo aplikazioan ematen diren agindu-proiektuak».

Espedientearen azterketa juridikoari dagokionez, ez da beharrezkotzat jotzen berariazko txosten juridikoa egitea, Arau-eraginaren Azterketari buruzko Memoria honetan proiektuaren bideragarritasun juridikoa eta hura egiteko prozedura aztertzen baitira. Hala ere, araua prestatzeko prozedura gauzatzen den bitartean, azterketa hori egitea beharrezkotzat edo egokitatzat jo ahal izango da. Proiektuaren azterketa juridikoa Arau-eraginaren Azterketari buruzko Memoria honen bidez taxutzeko eta txosten juridiko espezifiko bat egin beharrik ez izateko aukera jasotzen da 6/2022 Legearen 15.4 artikuluan.

Beste horrenbeste gertatzen da analisi ekonomikoarekin; izan ere, Arau-eraginaren Azterketari buruzko Memoria hau ere jasota dagoenez, ez da beharrezkotzat jotzen memoria ekonomiko espezifiko baten bidez jasotzea –eta hori ere, txostena egitea beharrezkotzat jotzea alde batera utzi gabe, araua egiteko prozeduraren garapenaren arabera–. 6/2022 Legearen 15.5 artikulua agintzen duena bete beharrekoa da hemen.

Aurreko izapideak eta agindu guztiak bideratu ondoren, espedientea osatu egin beharko da 6/2022 Legearen 24. artikuluan aipatzen diren agiri eta egintzekin, arau-xedapena onartu (27. artikulua) eta argitaratu (29. artikulua) baino lehen.

j) Ume eta nerabeengan izango duen eraginaren ebaluazioa

Ez da uste etorkizuneko arauak eragin aipagarririk izango duenik gazteen eremuan, Gazteriaren martxoaren 10eko 2/2022 Legean agertzen den definizioa kontuan hartuta. Gazte adingabeen eremuan, Arau-eraginaren Azterketari buruzko Memoria honen h) atalean adierazitakoari lotzen gatzaizkio.

Gainerako gazteengan (18 eta 30 urte bitarteko pertsonak, 2/2022 Legearen 2.c artikulua ematen duen definizioaren arabera), eragina eginbideagatik tarifa sartzearen ondorio izan daiteke; eragin hori, ordea, ez da oso garrantzitsutzat jotzen gazteei buruzko politiken esparruan, politika horiekin duen lotura urrun eta zeharkakoagatik.

k) Irisgarritasunaren azterketa

Ez da uste arauak inolako eraginik izango duenik Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legeak araututako eremuan.

l) Garrantzitsuak izan daitezkeen beste eragin batzuen ebaluazioa

Ez da ikusten agindu-proiektu honek eragin garrantzitsurik izan dezakeenik Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15. artikulua 3. apartatua zerrendatutako gainerako eremuetan.

m) *Ex post* ebaluazioa

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren esparruan *ex post* ebaluazioari buruzko erregulazio espezifikorik ez dagoenez, eta Arau-eraginaren Azterketari buruzko Memoria arautzen duen urriaren 27ko 931/2017 Errege Dekretuaren 2.1.j) artikuluan ezarritakoa aplikatuz, ez da beharrezkotzat jotzen arau-proiektu honen emaitzen *ex post* ebaluazio zehatza egitea.

ZIGOR URKIAGA URKIZA

**PROIEKTU ESTRATEGIKOEN ETA INDUSTRIA ADMINISTRAZIOAREN
ZUZENDARIA**

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA